

Juanma Peluaga eta Josu Barandiaran

# CAMB ETA PEIO ETORRI

batean sartzen gara. Peio balego, ondo baino hobeto gidatuko gintuzke leku berri hauetatik. Ez dugu apenas aztarnarik ikusten, ilargia sartu baita mendiaren atzean. Hortaz, itzalean goaz, frontala erabiltzera behartuta. Nahiz eta ikusi ez, badakigu –Peiok esana– ibarraren hondoan laku batzuk daudela. Ondorioz, mendi mazelatik joan beharra dugu, hondo baina metro batzuk altuago beti.

Bidean gindoazela eguzkia atera da eta Peyre de Saint Martin lepora eguargiz ailegatzen gara. Hemendik Piedrafitako mendialdea ikusten dugu. Elur asko dago, dena zurizuria, ikuspegia zoragarria. Bakardadea somatzen dugu: ez dugu ez jenderik, ez aztarnarik ikusten.

Hemendik ez dugu aurkitzen ezkerrean sartzeko aukerarik, Cambalès gure ezkerrean baitago, eta Respomusoko bideraino jaisten gara.

Hortik ekialderantz, Campo Planoko errekarren ondotik eta beraren gainetik segitu behar da. Gorputzak nekea somatzen du, baina buruak eta altimetroak esaten dute oraindik asko falta zaigula. Fachako lakuan iparraldera jo eta haran txiki batean sartzen gara. Atzean Infiernoak, Gran Facha eta abar ditugu. Haran honek hasiera Port d'Azun izeneko lepoan du, baina haraino heldu gabe, eskubira sartzen gara malda batean gora eta gora. Orain arte izkatuta egon den Cambalèsko azken malda ikusten dugu hemendik. Pala honen itxura zpragarriak, Garmo Negrokoa ekartzen dit gogora. Elurra gogorra dago eta

*"...eguzkia atera da eta Peyre de Saint Martin lepora eguargiz ailegatzen gara."*

• Gora eta gora goaz  
• Mendiko bakardadean

**pi-pi-pi-pi.**

Goizeko hirurak dira. Hala esaten du erlojuko esnagailuak. Banuen gogoalaxatzeko. Izan ere, lau ordu lehenago sartu gara lozakuan eta ez dut apenas lorik egin.

Maison du Parc-eko eraikinaren gerizpean gaude, Barrage du Tech pasatuta, Arrenseko ibarrean. Termometroak

2,5º markatzen du. Dena azkar jaso eta elur izoztuaren gainean hurbildu gara kotxera. Gosalduta, tresnak hartu eta martxa. Laurak laurden gutxi.

Lau etorri behar ginen, baina azkenean hiru heldu gara hona. Peiok hainbat ordutan prestatutako planak itxura polita du: Cambalès Maison du Parc honetatik abiatuta. Lastima, azken orduko ezustek galerazi diola etortzea.

Basoan tarteka elurra dago. Beraz, eskiak bizkarrera jaso eta aurrera. Lac de Suyenen jantzi ditugu eskiak. Ilargiak argitzen digu bidea. Gu gora eta gora, laster utzi dugu eskubian Larribeteko bidea, gero Balaitousera doana, eta orain ezagutzen ez dugun eremu

*"...lau ordu lehenago sartu gara lozakuan eta ez dut apenas lorik..."*

• Aupa Juanma!  
• Bai paisaia zoragarria!

altxagailua kenduta kutzilak hobeto sartzen dira elurretan.

Eta heldu gara puntara. Goizeko hamaikak. Beraz, zazpi ordu eman ditugu bidean. Paisaia estonagarria: Balaitous, Vignemale, Infiernoak, Telera, Collarada... Eguraldia, gutxitan bezala, zoragarria. Ilara luze bat ikusten dugu mendiaren azpian: Wallon aterpetik datozenak.

Gorakoan Juanmak eta Jorgek jaisteko erabiliko dugun sarbidea identifikatu dute, Peiok aipatu zigun bezala. Etorri garen bidetik bueltatu beharrean, Cambalèsko azken palaren hasieran, iparraldean irekitzen den kanal batetik badago jaisterik. Goitik ez da oztoporik ikusten eta



# ALÈS

## EZ

■ Azken maldak




beherantz abiatzen gara birritan pentsatu gabe. Lehenengo pala ondo dago eta esandako sarbidea pasatuta eremu ezozagunean sartzen gara. Han elur-hauts zoragarria topatzen dugu. Badaude hemen terraza batzuk, elkarren artean maldak goxoez lotuta. Elurra ezin-hobe. Hau bai, hau egunak! Bete-betea esanatu dugu.

Beti iparralderantz jotzen dugu eta goizean igo dugun ibarriera jaisteko, aurrean dugun azkeneko aidapa, berez potentes, ez dugu oso modu onean aurkitzen. Juanmak eta biok komeriak egin behar izan ditugu hortik ateratzeko.

Haran nagusira jaitsita, goizean ikusi ez dugun paisaia bistaratzen dugu. Elurra oso ondo dago hemen eta honela goxatuz, abiatu garetik hamar ordu betetzen direnean, sartzen gara berriz goizeko aparkalekuan. Mundiala!

Hala ere, lagunaren falta somatzen dugu nonbait, eta horregatik esaten dugu: "Cambales, eta Peio etorri ez".

*"...Goitik ez da oztoporik ikusten eta beherantz abiatzen gara birritan pentsatu gabe."*



### Resumen

De la mano de Juanma Peluaga y Josu Barandiaran, se nos propone un recorrido novedoso en esquís a la cima de Cambales. Partiendo de la localidad norpirenaica de Arrens-Marsous, una modesta carretera de montaña supera la Barrage du Tech y nos permite penetrar en el valle hasta los 1470 m de la Maison du Parc. Subiendo al cercano Lac de Suyen, seguiremos ya con los esquís, el ramal más oriental del valle para alcanzar el collado de la Peyre de Saint Martin. Un breve descenso hacia la vertiente sur nos acerca al barranco de Campo Plano, que remontaremos en dirección al objetivo de la excursión. Sin alcanzar el Col d'Azun, una hermosa pala nos permitirá alcanzar la cima de Cambales. Para el descenso, el cercano collado sobre el Col d'Azun, es la brecha por la que saltaremos a la vertiente noroeste para seguir la canal que nos devolverá al valle de subida. Para terminar, los autores dedican el artículo al amigo ausente, Pello, que ideó la excursión pero no pudo acompañarnos en ella. □

**Zeharkaldiaren data:** 2004/04/07  
**Desnibela:** 1600 m  
**Distantzia:** 19,5 km  
**Denbora:** 10 ordu  
**Partaideak:**

Juanma Peluaga (Ametzagaina-Loiola)  
 Jorge Mendia (Irungo Mendizaleak)  
 Josu Barandiaran (Irungo Mendizaleak) □